

L-13

EGUZKI-ENERGIA HARTZEKO SISTEMAK INSTALATZEKO OBRA-LIZENTZIA

1.- Proiektua lantzea beharrezko duten instalazioak.

Eguzki-energia hartzeko instalazioaren proiektua entregatu beharra dago. Aipatu proiektua teknikari eskumendunak sinatua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia behar du. Hori guztia, ondoko araudi sektorialari jarraiki:

- 70 KW edo gehiagoko potentzia izenduna duten instalazio termikoak (Ur beroa eta berogailua).
- 5KW-etik gorako potentzia duten instalazio fotovoltaikoak (Elektrizitatea ekoiztekoak)

Proiektuak, gutxienez, "Eraikinetan eguzki energia hartzeko eta aprobetxatzeko udal ordenantza Arautzailean" jasotako dokumentuak ekarri behar ditu.

Kasu horietan, ondoko agiriak entregatu behar dira:

- o Obrako Zuzendaritzaren nahiz obrako segurtasuna eta osasuna koordinatzearen arduradun diren teknikarien zerbitzu profesionalak alokatzeko kontratua.
- o Segurtasunari eta osasunari buruzko txostena edo oinarrizko txostena.

Obra amaitzean Obra Amaierako Ziurtagiria entregatu behar da, teknikari eskumendunek sinatua eta dagozkion Elkargo Profesionalek ikus-onetsia. Aipatu ziurtagiriak erakutsi behar du instalazioa bat datorrela aurkeztutako proiektuarekin eta indarrean dauden arauak betetzen dituela. Horrez gain, egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturak aurkeztu behar dira, baita jarduketa eremu guztien argazki-erreportajea ere.

Sarera konektatutako instalazio fotovoltaikoen kasuan, instalazioa egin duen instalatzaile baimendunak igorritako txostena aurkeztu beharra dago. Aipatu txostenarekin batera, probak gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztuko da.

2.- Proiekturik behar ez duten instalazioak.

Proiektua egin behar ez den kasuetan, nahikoa izango da baimendutako instalatzaileak igorritako honako agiriak aurkeztearekin:

- o Instalazioari buruzko txostentxo deskriptiboa.

- Instalaturako potentziaren kalkulua.
- Instalazioen planoak edo eskemak.
- Instalazioaren aurrekontua, atalka eta sailka banakatua.
- Instalazio fotovoltaikoen kasuan (5 KW edo gutxiagoak), instalazioari buruzko hari bakarrekoko eskema.

Obra amaitzean, halaber, baimendutako instalatzaileak igorritako txostena edo ziurtagiria atxiki beharko da. Aipatu agiriak erakutsi behar du instalazioa aurkeztutako agiriekin eta indarrean dauden arauekin bat datorrela. Horrez gain, gauzatutako inbertsioari dagozkion fakturak eta jarduketa eremu guztien argazki-erreportaia entregatu behar dira.

3. Instalazio guztietarako agiriak

Instalazioek unean une indarrean dauden eta aplika daitezkeen arau sektorialak bete beharko dituzte, batez ere, Behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa eta eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (edo horien ordeko izan daitezkeen legeko xedapenak). Kasu bakoitzean dagokiona aplikatu beharko da.

Era berean, "Eraikinetan eguzki energia hartzeko eta aprobetxatzeko Udal ordenantza Arautzailean" datozen eta aplika daitezkeen baldintza guztiak bete beharko dira, bereziki, paisaia babesteari buruzkoak.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek, kasuan kasu gauzatuko diren lanen ezaugarriak kontuan hartuta, ondokoak eska ditzakete:

- Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko legeak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria, baita segurtasunari eta osasunari buruzko txostena edo oinarritzko txostena ere.
- Plaken eta berorien euskarrien erresistentziari buruzko kalkulua, NB-E-AE-88 agirian ezarritakoarekin bat, elurraren eta haizearen gainzama kontuan hartuta.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun

Akats horiek ez badira zuzentzen, beste izapiderik gabe artxibatuko da.